

**COMPTE-RENDU DU CONSEIL MUNICIPAL**  
**DU JEUDI 15 DECEMBRE 2016.**

Le quinze décembre deux mille seize, à vingt heures, le Conseil Municipal régulièrement convoqué, s'est réuni au nombre prescrit par la loi, sous la présidence de **Monsieur Bruno CARRERE, Maire.**

**Etaient présents :** M. CARRERE *Maire*, Mmes SEMERENA, GALLOIS, CEDARRY, MM. GOYHENECHÉ, ROUAULT, DRIEUX *Adjoints*, Mmes ORHATEGARAY-SONNET, ARISTIZABAL, CASABONNET-MOULIA, DOYHENART, LARRONDE, DURAND-RUEDAS, MM. MINVIELLE, IBARBOURE, DAGUERRE, MACHICOTE, OSPITALETCHE, ROUGET, SERRANO, SARRATIA, DUMON, VINET, CENDRES *Conseillers municipaux.*

**Etaient excusés :** Mmes LAMAISON, ZUFIAURRE, MOREL, MM. SAINT-JEAN, URRUTIA.

**\* SECRETAIRE DE SEANCE :** Madame LARRONDE

- \* Madame Lamaison donne procuration à Madame Doyhenart.
- \* Madame Zufiaurre donne procuration à Madame Aristizabal.
- \* Monsieur Saint-Jean donne procuration à Madame Durand-Ruedas.
- \* Monsieur Urrutia donne procuration à Monsieur Vinet.

**\* AGRICULTURE – FORET.**

**1. O.N.F. – DELIVRANCE COUPE DE BOIS 2017 DANS LA FORET COMMUNALE BENEFICIANT DU REGIME FORESTIER – PARCELLES 29p, 38p, 39p, 40, 15p, 16p, 17p, 21.**

Monsieur Daguerre présente le rapport suivant,

Sur proposition de l'O.N.F. et après en avoir délibéré, le Conseil Municipal modifie pour les coupes de bois réglées des exercices précédents et fixe pour les coupes de bois réglées de l'exercice 2017 les destinations suivantes :

**A - COUPES FEUILLUES EN BOIS FACONNE**

**Vente de futaies façonnées pour l'hiver 2016/17**

Parcelles 29p, 38p, 39p, 40.

Essences majoritaires : Chêne pays et Chêne rouge.

Catégories de produits vendus : grumes classées à l'initiative de l'ONF.

Le Conseil Municipal donne délégation à l'O.N.F. pour vendre les produits façonnés désignés ci-dessus.

**Vente de futaies façonnées pour l'hiver 2017/18**

Parcelle 4

Essences majoritaires : Chêne pays

Catégories de produits vendus : grumes classées à l'initiative de l'ONF.

Le Conseil Municipal donne délégation à l'O.N.F. pour vendre les produits façonnés désignés ci-dessus.

**B - DELIVRANCE DE BOIS FACONNES AUX AFFOUAGISTES**

**2016ko ABENDOAREN 15eko OSTEGUNEKO HERRIKO BILTZARREKO BILDUMA.**

**Bi mila hamaseiko abendoaren hamaseian**, arratseko zortzietan, Herriko biltzarra ohiz gomitatua, bildu da legeak manatu kopuruan, **Bruno CARRERE Jaun Auzapezaren** lehendakaritzapean.

**Hor zirenak :** CARRERE jauna *Auzapeza*, SEMERENA, GALLOIS, CEDARRY andereak, GOYHENECHÉ, ROUAULT, DRIEUX jaunak *Axuantak*, ORHATEGARAY-SONNET, ARISTIZABAL, CASABONNET-MOULIA, DOYHENART, LARRONDE, DURAND-RUEDAS Andereak, MINVIELLE, IBARBOURE, DAGUERRE, MACHICOTE, OSPITALETCHE, ROUGET, SERRANO, SARRATIA, DUMON, VINET, CENDRES Jaunak *kontseilariak.*

**Barkatuak :** LAMAISON, ZUFIAURRE, MOREL andereak, SAINT-JEAN, URRUTIA jaunak.

**\* SAIOAREN IDAZKARIA :** LARRONDE Anderea

- \* Lamaison andereak ahalordea Doyhenart andereari eman dio.
- \* Zufiaurre andereak ahalordea Aristizabal andereari eman dio.
- \* Saint-Jean jaunak ahalordea Durand-Ruedas andereari eman dio.
- \* Urrutia jaunak ahalordea Vinet jaunari eman dio.

**\* LABORANTZA – OIHANA.**

**1. O.E.N. - 2017KO URTERAKO EGUR MOZTUEN BANAKETA OIHAN ARAUBIDEAREN PEAN DEN HERRIKO OIHANEAN – 29p, 38p, 39p, 40, 15p, 16p, 17p, 21 LURSAILAK.**

Daguerre jaunak ondoko txostena aurkezten du,

O.E.N.ak proposaturik eta eztabaidatu ondoan, Herriko Biltzarrak aldatzen du aitzineko finantza aldietan ordaindu egur mozteentzat eta finkatzen du 2017ko finantza aldiko ordaindu egur mozteentzat ondoko mugak :

**A – EGUR MOLDATU HOSTOTSUEN MOZTEA**

**2016/17 neguko zuhaitz moldatuen saltzea**

29p, 38p, 39p, 40 lursailak.

Gehiengo zuhaitz motak : Tokiko haritza eta haritz gorria.

Saldu produktoen kategoriak : O.E.N.ak sailkatu zuhaitzak.

Herriko Biltzarrak ahalmen ordezkaritza ematen dio O.E.N.ari gorago aipatu egur moldatuen saltzeko.

**2017/18 neguko zuhaitz moldatuen saltzea**

4. lursaila

Gehiengo zuhaitz motak : Tokiko haritza

Saldu produktoen kategoriak : O.E.N.ak sailkatu zuhaitzak.

Herriko Biltzarrak ahalmen ordezkaritza ematen dio O.E.N.ari gorago aipatu egur moldatuen saltzeko.

**B – ZUHAITZ MOLDATUEN SALTZEA EROSLEEI**

Beren beharrei erantzuteko, eroslearen rola bat plantan ezarri ondoan eta erosteko zerga bat, ondotik zehaztu produktoentzat :

Pour leur besoins propres, après établissement d'un rôle d'affouage et moyennant une taxe d'affouage, des produits définis ci-après :

Houppiers, taillis, petite futaie issus des coupes de bois façonnés Parcelles 29p, 38p, 39p, 40 ;

Taillis, petite futaie Parcelles 15p, 16p, 17p, 21 de l'état d'assiette 2017 ;

Mode d'exploitation de l'affouage retenu :  sur pied  en régie  à l'entreprise ;

Les portions mises à disposition en bord de route doivent être enlevées par les affouagistes avant le : 31 août 2017.

**Passé ce délai, les affouagistes n'ayant pas terminé l'évacuation de leur lot, seront considérés comme y ayant renoncé.**

## **C - REMUNERATION DE L'ONF POUR LES PRESTATIONS CONTRACTUELLES CONCERNANT LES BOIS FAÇONNES**

Le Conseil Municipal demande à l'ONF d'assurer la prestation contractuelle suivante :

Assistance Technique à Donneur d'Ordre + cubage pour les coupes marquées dans les parcelles 29p, 38p, 39p, 40, Il s'engage à rémunérer l'ONF selon les barèmes en vigueur à la date de signature du devis.

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **AUTORISE** le Maire à signer le devis qui sera présenté par l'ONF pour l'exécution de cette prestation ;

- **AUTORISE** le Maire à signer tout document concernant cette opération.

## **2. COUPES AFFOUAGERES 2017 ET 2018.**

Monsieur Daguerre présente le rapport suivant,

La commune d'Ustaritz envisage de procéder à la vente de bois de chauffage dans des conditions différentes de celles pratiquées jusqu'à présent.

Les prélèvements de bois dans la forêt doivent se faire dans le cadre d'une gestion durable et dans des conditions de sécurité optimales.

Compte tenu d'une part que, le plan d'aménagement forestier arrive à échéance fin 2018 et que les parcelles prévues pour l'affouage ne peuvent fournir une quantité de bois suffisante dans les conditions passées, et que d'autre part les directives de l'ONF relatives à la sécurité nous limitent en terme de diamètre pour l'abattage (35cm).

Les modalités pour l'affouage 2017 et 2018 seront les suivantes :

- Seuls les habitants de la commune n'ayant pas bénéficié de lots en 2016 pourront s'inscrire au secrétariat des services techniques de la mairie (Site Landagoien du lundi 13h30 au vendredi 12h00) et ce, du 28 novembre 2016 jusqu'au 23 décembre 2016 inclus.
- Les inscriptions par téléphone ne seront pas retenues.
- Il sera attribué un lot unique par foyer dans la mesure

Zuhaitz moldatuen moztetik atera aldaxkak, zuhaitz txarrak, zuhaitz handiak 29p, 38p, 39p, 40 lursailak ;

2017ko oinarriaren baitako zuhaitz txarrak, zuhaitz ttipiak 15p, 16p, 17p, 21 lursailak ;

Saltzeko den zuhaitzaren lantzeko moldea :  zutik  herriak egina  enpresak egina ;

Bide bazterrean ezarri zatiak, erosleek aterako dituzte 2017ko agorrilaren 31 aitzin.

Epe hori pasatu eta, beren lota aterraia ez duten erosleek utzia dutela kontsideratuko da.

## **C – EGUR MOLDATUEEI DAGOKIONEZ O.E.N.aren ZERBITZUEN ORDAINTZEA**

Herriko Biltzarrak O.E.N.ari galdatzen dio ondoko zerbitzua :

Agindu emailari laguntza teknikoa + 29p, 38p, 39p, 40 lursailetan markatu egur mozteen neurria.

Aurrekontuaren izenpetzeko datan indarrean izanen den prezioen taularen arabera O.E.N.aren ordaintzera engaiatzen da.

Herriko Kontseiluak aho batez,

- **BAIMENA EMATEN DIO** Auzapezari, zerbitzu horrien egiteko O.E.N.ak aurkeztuko dion aurrekontua izenpe dezan ;

- **BAIMENA EMATEN DIO** Auzapezari, operazio honi dagozkion dokumentu guziak izenpe ditzan.

## **2. 2017KO ETA 2018KO HERRIKO EGUR MOZKETAK.**

Daguerre jaunak ondoko txostena aurkezten du,

Uztaritzeko herriko etxeak, berotzeko baliatzen den egur salketak eginen ditu usaiak kanpoko baldintzetan.

Egur mozketak oihanean, kudeaketa iraunkor batean egin beharko dira eta ahal bezain bateko segurtasun baldintza handienetan.

Jakinez alde batetik, oihanaren antolakuntzarako plana 2018ko urte hondarrean bururaten dela eta mozketetatzat atxikiak diren lursailak ez dutela lehen bezalako egur nahikorik hornitzen ahal, eta bestalde segurtasunari lotuak diren O.E.N.aren erabakiek, zuhaitz diametroa (35zm) mugatzen dutela zuhaitz mozketarentzat.

2017ko eta 2018ko herriko egur mozketen baldintzak hona hontakoak dira :

- 2016 urtean egurrik ukan ez duten herriko biztanleek baizik eskura ditzazke egur loteak, beren izena herriko etxeko zerbitzu teknikoetan emanez (Landagoieneko gunea, astelehenetik 13:30etik ostiralera 12:00etara) eta hori, 2016ko azaroaren 28tik 2016ko abendoaren 23a barne.
- Telefonoz eginen diren izen emateak ez ditugu konduan hartuko.
- Lote bakar bat eskainia izanen da familia, eskuragarri diren loteen andanaren arabera mugaturik.
- Hautaketa, LAPURDI gelan iraganen da, 2017ko urtarrilaren 29an, 10:00etan.
- Lote horiek, ez dira familien beharrentzat baizik atxikiak izanen.

- où les lots disponibles seront en nombre suffisants.
- Le tirage au sort aura lieu le dimanche 29 janvier 2017 à 10 heures à la salle LAPURDI.
- Ces lots seront exclusivement réservés à la consommation particulière de chaque foyer.
- La liste des candidats fera l'objet d'un examen par la commission communale de la forêt.
- Les lots auront un volume de 8 stères environ.
- Le prix du lot sera de 185,00€.

Les arbres seront mis à disposition des affouagistes dans les conditions suivantes :

- Ils seront abattus, débardés puis regroupés par lots numérotés par la commune vers une zone relativement accessible.

Le Conseil Municipal,

- **ACCEPTÉ** la vente de bois de chauffage dans les conditions énumérées ci-avant.

<b>VOTES :</b>	POUR	25
	CONTRE	0
	ABSTENTIONS	3 (Saint-Jean, Dumon, Durand-Ruedas)

**\* URBANISME.**

**3. COMMUNE DE VILLEFRANQUE - REVISION GENERALE DU PLAN LOCAL D'URBANISME - AVIS DE LA COMMUNE D'USTARITZ.**

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

Par délibération du 14 avril 2015, le Conseil Municipal de la commune de Villefranque a décidé de prescrire la révision du Plan Local d'Urbanisme (P.L.U.) sur l'ensemble du territoire communal.

Par courrier du 28 octobre 2016, Monsieur le Maire de cette commune demande l'avis du Conseil Municipal d'Ustaritz sur le projet arrêté du PLU.

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **DONNE** un avis favorable sur le projet arrêté du PLU de la commune de Villefranque.

**4. COMMUNAUTE DE COMMUNES ERROBI - CONVENTION POUR L'INSTRUCTION DES AUTORISATIONS D'URBANISME.**

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

Par délibération en date du 11 février 2015, la Communauté de communes décidait la création d'un service communautaire d'instruction des autorisations d'urbanisme pour le compte de

- Oihanaz ardura duen herriko batzordeak hautagaien zerrenda aztertuko du.
- Loteek, 8 ezterretako bolumena izanen dute, nunbait han.
- Lote banaren prezioa : 185,00€.

Zuhaitzak, herriko egur mozlarien esku utziak izanen zitzaizkie baldintza hauetan :

- Herriko etxeak mozturik, abarrezaturik eta lote zenbakidunez bildurik izanen dira, sartzeko erraza izanen den gune batean.

Herriko Kontseiluak,

- **ONARTZEN DU**, berotzeko baliatzen den egur salketak egin ditetezen aipatu baldintetan.

<b>BOZKAK :</b>	ALDE	25
	KONTRA	0
	ABSTENTZIOAK	3 (Saint-Jean, Dumon, Durand-Ruedas)

**\* HIRIGINTZA.**

**3. MILAFRANGAKO HERRIA – TOKIKO HIRIGINTZA PLANAREN BERRIKUSTE OROKORRA – UZTARITZEKO HERRIAREN IRITZIA.**

Goyheneche jaunak ondoko txostena aurkezten du,

2015eko apirilaren 14ko deliberoz, Milafrangako herriko kontseiluak herriko lur eremu guziko Tokiko Hirigintza Planaren berrikuspena manatzea erabaki du.

2016ko urriaren 28ko gutun baten bitartez, herri honetako Auzapezak, Uztaritzeko herriko kontseiluaren iritzia eskatzen du Tokiko Hirigintza Planari buruz.

Herriko Kontseiluak aho batez,

- Ikusmolde baikorra **EMATEN DU** Milafrangako herriaren Tokiko Hirigintza Planaren proiektuari.

**4. ERROBI HERRI ELKARGOAK – HIRIGINTZA BAIMENEN KUDEATZEKO HITZARMENA.**

Goyheneche jaunak ondoko txostena aurkezten du,

2015eko otsailaren 11ko deliberoan, Herri Elkargoak bere herrietako kideentzat hirigintza baimenen kudeatzeko zerbitzu baten sortzea erabaki zuen.

Ikertzale zerbitzuaren esku uzteko baldintzak eta kide diren herri bakoitzaren eta Errobi Herri Elkargoaren errolaren definitzea lurren baliatzeari eta okupatzeari buruzko ikertze prozeduran definituak izan dira hitzarmen batean.

Hala ere, hirigintza zerbitzuak zerbitzu berriak proposatzen ditu kudeaketaren jarraipena bermatuz. Herriek hautatu dezakete zerbitzu horretan sartu nahi duten ala ez.

Hitzarmen honen onartzea komeni da eta bereziki 5. Artikulua.

ses communes membres.

Les modalités de mise à disposition du service instructeur et la définition du rôle de chaque commune membre et de la Communauté de communes Errobi dans la procédure d'instruction des autorisations relatives à l'occupation et à l'utilisation des sols ont été définies dans une convention.

Cependant le service urbanisme propose de nouveaux services dans le cadre de la post-instruction. Il est laissé le choix aux communes d'adhérer à ces nouveaux services.

Il convient donc d'amender cette convention et notamment son article 5 en approuvant de confier à la Communauté de communes ERROBI l'ensemble des prestations nouvelles prévues dans la convention jointe à la présente délibération.

VU les articles L. 422-1 et R. 423-15 du Code de l'Urbanisme,

VU l'article L.5211-4-2 du Code Général des Collectivités Territoriales relatif à la mise en œuvre de services communs entre un établissement public de coopération intercommunale à fiscalité propre et une ou plusieurs de ses communes membres, VU la délibération du Conseil communautaire en date du 11 février 2015 portant création d'un service communautaire d'instruction des autorisations d'urbanisme,

VU la délibération du Conseil communautaire en date du 15 avril 2015 portant conventionnement pour l'instruction des autorisations d'urbanisme,

Vu la délibération du Conseil Municipal en date 25 juin 2015 approuvant la convention pour l'instruction des autorisations d'urbanisme,

Le Conseil Municipal,

- **APPROUVE** l'avenant à la convention pour l'instruction des autorisations d'urbanisme ;

- **DECIDE** de confier à la Communauté de communes ERROBI l'ensemble des prestations nouvelles prévues dans la convention jointe à la présente délibération ;

- **AUTORISE** le Maire à signer avec la Communauté de communes ERROBI la convention de prestation de service pour l'instruction des autorisations d'urbanisme correspondantes, ainsi que toutes autres pièces afférentes à ce dossier.

**VOTES :** POUR 24  
CONTRE 3 (Saint-Jean, Dumon, Durand-Ruedas)  
ABSTENTIONS 1 (cendres)

#### **\* FINANCES - ACTION ÉCONOMIQUE - RESSOURCES HUMAINES.**

#### **5. REPARATION DE LA SOUCHE DE LA CHEMINÉE DU CHATEAU**

Izan ere, artikulua hori onartuz delibero honekin batera eskuratu hitzarmenean agertzen diren zerbitzu berri guziak ERROBI Herri elkargoaren esku uztea onartzen baita.

Ikusirik, hirigintza kodeko L.422-1 eta R.423-15 artikulua ;

Ikusirik, lurraldeetako kolektibitate orokorreko kodeko L.5211-4-2 artikulua, zerbitzu amankomunen plantan ezarzeari dagokiona fiskalitate propioa duen herriarteko lankidetzaren erakunde publikoa eta kide dituen herri bati edo bat baino gehiagori ;

Ikusirik, 2015eko otsailaren 11ko batzordeko kontseiluko deliberoa zeinetan hirigintza baimenen kudeatzeko zerbitzu batu baten sortzeaz ari zen,

Ikusirik, 2015eko apirilaren 15eko batzordeko kontseiluko deliberoa zeinetan hirigintza baimenen ikertzeko hitzartu batetaz ari zen,

Ikusirik, 2015eko ekainaren 25eko Herriko Kontseiluko deliberoa zeinetan hirigintza baimenen kudeatzeko hitzarmena onartua zen,

Herriko Kontseiluak,

- **ONARTZEN DU** hirigintza baimenen kudeaketarako hitzarmenaren gehigarria ;

- **ERABAKITZEN DU** delibero honi lotua den hitzarmenean agertzen diren zerbitzu berri guziak ERROBI Herri elkargoaren esku uztea ;

- **ONARTZEN DU** Auzapezak hirigintza baimenen kudeaketa zerbitzua ERROBI Herri elkargoaren esku uzteko hitzarmena, eta dagozkion dokumentu guziak izenpe ditzan.

**BOZKAK :** ALDE 24  
KONTRA 3 (Saint-Jean, Dumon, Durand-Ruedas)  
ABSTENTZIOAK 1 (cendres)

#### **\* FINANTZAK – EKINTZA EKONOMIKOA – GIZA BALIABIDEAK.**

#### **5. LOTA GAZTELUKO HEGOALDEKO ALDEAN DEN TXIMINIAREN ZIMENDUAREN KONPONKETA – FINANTZAKETA PLANAREN ONARPENA – DIRULAGUNTZA ESKAERA AKITANIA BERRIA ESKUALDEARI.**

Drieux jaunak ondoko txostena aurkezten du,

Herriko Kontseiluari oroitarazten du Lota Gazteluko hegoaldeko aldean den tximiniaren zimenduaren konponketaren gastua 51 923,14 €koa dela.

Erabakitzeraz gomitatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez,

- **ONARTZEN DU**, obren gauzatzea 51 923,14 € zergarik gabeko

**LOTA FAÇADE SUD – ADOPTION DU PLAN DE FINANCEMENT –  
DEMANDE DE SUBVENTION AUPRES DE LA REGION NOUVELLE  
AQUITAINE.**

Monsieur Drieux présente le rapport suivant,

Il rappelle au Conseil Municipal que le montant total des travaux pour la réparation de la souche de la cheminée de la façade Sud du Château Lota à Ustaritz s'élève à 51 923,14 € HT.

Appelé à délibérer, le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **APPROUVE** la réalisation des travaux pour un montant de 51 923,14 € HT, soit 62 307,77 € TTC ;

- **ARRETE** le plan de financement suivant :

. Subvention de l'Etat (16%)	8 307,70 €
. Subvention de la Région NA (30%)	15 576,94 €
. Participation de la commune (TVA comprise)	33 230,81 €

- **CHARGE** le Maire de solliciter les subventions correspondantes ;

- **S'ENGAGE** à prendre en charge le solde de l'opération si les aides publiques n'atteignent pas le montant indiqué ;

- **S'ENGAGE** à inscrire au budget les crédits nécessaires à la réalisation de cette opération.

**6. SUBVENTION ASSOCIATION UZTA.**

Monsieur Drieux présente le rapport suivant,

L'Association des commerçants et artisans d'Ustaritz (UZTA) a sollicité une subvention exceptionnelle pour l'organisation du marché de Noël qui s'est tenu le samedi 03 décembre 2016. Diverses animations de jeux, chants et cirque ont été proposées aux Uztariztar.

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **APPROUVE** le versement d'une subvention de 400 € à

l'Association des commerçants et artisans d'Ustaritz (UZTA) ;

- **PRECISE** que les crédits nécessaires sont prévus à l'article 6574 « Subvention de fonctionnement aux associations ».

**7. SERVICE JEUNESSE SPORTS ET VIE SCOLAIRE –  
TRANSFERT DU PERSONNEL COMMUNAL INTERVENANT  
AU SEIN DE LA PISCINE VERS LA COMMUNAUTE DE  
COMMUNES ERROBI – SUPPRESSION DES EMPLOIS  
PERMANENTS CORRESPONDANTS.**

Monsieur le Maire présente le rapport suivant,

Il rappelle la délibération du Conseil Municipal en date du 29 septembre 2016 adoptant les nouveaux statuts de la Communauté de communes ERROBI, à savoir l'extension des compétences communautaires en matière d'équipements sportifs, formalisée, entre

zenbatekoaren truke, hots 62 307,77 € zergak barne;

- **GELDITZEN DU**, ondoko finantzaketa plana :

. Estatuko dirulaguntza (%16a) 8 307,70 €

. AB Eskualdeko dirulaguntza (30%) 15 576,94 €

. Herriaren parte hartzea (zerga barne) 33 230,81 €

- **GALDATZEN DIO**, Auzapezari behar diren dirulaguntzen eskaera egitea ;

- **ENGAIATZEN DA**, ordaintzeko geldi daitekena bere gain hartzea, laguntza publikoak ez balire erran zenbatekoaren hainera heltzen ;

- **ENGAIATZEN DA**, eragiketa honen gauzatzeko behar diren kredituak aurrekontuan aitzin ikusiak izan dituen.

**6. UZTA ELKARTEA DIRULAGUNTZA.**

Drieux jaunak honako txosten hau aurkeztu du,

(UZTA) Uztaritzeko saltzaile eta ofiziale elkarteak dirulaguntza bat eskatu du 2016ko abenduaren 3an iragan den eguberriko merkatuaren antolatzeko. Animazio desberdinak proposatuak izanen zaizkiete Uztaritzare, joko, kantu, zirko.

Herriko Biltzarrak aho batez,

- **ONETSI DU** 400 euroko dirulaguntza ematea, UZTA Uztaritzeko saltzaile eta ofiziale Elkarteari ;

- **ZEHAZTU DU** horretarako kredituak aitzinikusiak direla 6574 artikuluan «Elkarteen funtzionamendurako dirulaguntza».

**7. GAZTERIA KIROLAK ETA ESKOLA BIZITZA ZERBITZUA –  
IGUERILEKUAN LANEAN ARI DIREN LANGILEEN  
TRANSFERITZEA ERROBI HERRI ELKARGORA – LANPOSTU  
IRAUNKORREN EZEZTATZEA.**

Auzapez jaunak ondoko txostena aurkezten du,

ERROBI herri elkargoak kirol ekipamendu mailan herrien arteko eskumenen hedatzeari buruz 2016ko irailaren 29ko deliberoan estatutu berriak onartu dituela orotarazten du, formalizatua besteak beste, UZTARITZEKO igerilekuaren funtzionamendua eta kudeantza bere gain hartuz.

Zehazten du, konpetentzia transferitze baten barnean, transferitu zerbitzuan denbora osoz lan egiten duten langileek, nahi ala ez eta automatikoki transferituak direla ERROBI herri elkargora.

Erabaki honen gauzatzeko, ERROBI Herri elkargoak proposatu dio UZTARITZEKO herriari, beren lan denbora osoa igerilekuan duten langileria osoa transferitzea. Zehaztua da beren lan denbora osoa igerilekuan egiten ez duten langileak ERROBI herri elkargoak UZTARITZEKO herriaren esku uzten dituela definitu beharrei erantzuteko eta ondoko hitzarmenetan idatziak izanen

autres, par la prise en charge de la gestion et du fonctionnement de la piscine d'USTARITZ.

Il précise que, dans le cadre d'un transfert de compétence, les agents, exerçant en totalité leurs fonctions dans le service transféré, sont obligatoirement et automatiquement transférés à la Communauté de communes ERROBI.

Afin de finaliser cette décision, la Communauté de communes ERROBI a proposé à la commune d'USTARITZ, le transfert de la totalité du personnel rattaché au service de la piscine pour la totalité de leur temps de travail. Il est précisé que les agents, qui n'exercent pas la totalité de leurs fonctions au sein de la piscine, sont mis à disposition de la commune d'USTARITZ par la Communauté de communes ERROBI, suivant les besoins actuellement définis qui seront retranscrits dans les conventions de mise à disposition à venir. Un accord écrit préalable des agents concernés doit être recueilli et soumis à l'avis de la Commission Administrative Paritaire. Les agents qui n'exercent pas la totalité de leurs fonctions au sein de la piscine ont la possibilité de refuser le transfert vers la Communauté de communes ERROBI. Ils restent alors agents de la commune d'USTARITZ et sont mis à disposition de la Communauté de communes ERROBI de droit par la commune d'USTARITZ. Le refus de transfert doit être également acté par écrit.

Il est donc demandé au Conseil Municipal de se prononcer sur le transfert du personnel concerné au 31 décembre 2016 et, en conséquence, de supprimer les emplois correspondants, à savoir :

- 3 emplois permanents à temps complet d'ETAPS ;
- 3 emplois permanents à temps complet d'ETAPS principaux 1<sup>ère</sup> classe ;
- 1 emploi permanent à temps complet d'adjoint technique principal 2<sup>ème</sup> classe.

Un agent à temps complet titulaire du grade d'ETAPS a demandé à conserver son poste au sein de la commune d'USTARITZ et à être mis à disposition de droit de la Communauté de communes ERROBI, à hauteur de 27 heures par semaine correspondant au temps de travail piscine, du 1<sup>er</sup> janvier 2017 au 31 mai 2017.

Considérant que 4 agents qui n'exercent pas en totalité leurs fonctions au sein de la piscine ont émis un avis favorable à leur transfert vers la Communauté de communes ERROBI,

Considérant qu'un agent qui n'exerce pas en totalité ses fonctions au sein de la piscine a choisi de rester dans les effectifs de la commune d'USTARITZ et d'être mis à disposition de la Communauté de communes ERROBI, du 1<sup>er</sup> janvier 2017 au 31 mai 2017, à hauteur de 27 heures par semaine,

Considérant que le Comité Technique de la commune d'USTARITZ a émis un avis favorable à ce transfert et à la

direla. Langileek onartu akordio bat bilduko da eta Bitartekari Administratibo Batzordeari aurkeztuko zaio . Beren lan denbora osoa igerilekuan egiten ez duten langileek ERROBI herri elkargora transferituak izatea errefusatu dezakete . UZTARITZEKO langile gelditzen dira eta UZTARITZEKO herriak ERROBI Herri elkargoaren esku uzten ditu. Transferitzearen ez onartzea idatziz egin behar da.

Beraz galdegina zaio Herriko Kontseiluari, 2016ko abenduaren 31a aitzin bere iritzia eman dezan langileriaren transferitzeari buruz, eta ondorioz, ondoko lanpostuak ezeztatzea :

- 3 ETAPS lanpostu iraunkor denbora osoz ;
- 3 lehen mailako ETAPS nagusi lanpostu iraunkor denbora osoz ;
- 1 bigarren mailako axuant tekniko nagusi lanpostu iraunkor denbora osoz ;

ETAPS mailako tituludun denbora osoko langile batek galdatu du bere postua UZTARITZEKO herrian egon zadin eta ERROBI herri elkargoaren esku utzia izan zadin 27 orenez asteen , igerilekuko lan denbora, 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko maiatzaren 31a arte.

Ikusiz beren lan denbora osoa igerilekuan egiten ez duten 4 langilek ERROBI herri elkargora transferituak izatearen alde i agertu direla ;

Ikusiz bere lan denbora osoa igerilekuan egiten ez duen langile batek hautatu duela UZTARITZEKO herriko langile egotea eta ERROBI herri elkargoaren esku utzi izatea 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko maiatzaren 31arte, 27orenez asteen ;

Ikusiz UZTARITZEKO herriko Teknika Batzordeak transferitzearen eta 9 lanpostu iraunkorren ezeztatzearen alde agertu dela , 2016ko abenduaren 9an ;

Ikusiz ERROBI herri elkargoak galdaturik, Herriarteko Teknika Batzordeak eman aldeko iritzia 2016ko abenduaren 6an,

Bere azalpen gehigarrietan Auzapeza entzun ondoan eta erabaki ondoan,

Herriko Biltzarrak aho batez,

**- ONARTZEN DU :**

- Igerilekuan lan egiten duten 7 langile transferitzea ERROBI herri elkargora, 2016ko abenduaren 31tik aitzina ;
- Lanpostu iraunkorren ezeztatzea 2016ko abenduaren 31tik aitzina ;
- ETAPS lanpostu iraunkor baten atxikitzea UZTARITZEKO herrian 2016ko abenduaren 31tik aitzina eta langile hori ERROBI herri elkargoaren esku uztea asteen 27 orenez ;
- Beren lan denbora osoa igerilekuan egiten ez duten 4 langilek alde agertu ondoren, ERROBI herri elkargoaren esku utziak izan ditzen.

**- BAIMENA EMATEN DIO** Auzapezari izenpetu ditzan :

- Erabaki honi dagozkion dokumentu guztiak ;

suppression des emplois permanents susvisés le 9 décembre 2016,

Considérant l'avis favorable émis par le Comité Technique Intercommunal en date du 6 décembre 2016, suite à la saisine de la Communauté de communes ERROBI,

Après avoir entendu le Maire dans ses explications complémentaires et après en avoir délibéré,

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

**- APPROUVE :**

- Le transfert vers la Communauté de communes ERROBI de 7 agents exerçant leurs fonctions au sein du service de la piscine, à compter du 31 décembre 2016 ;
- La suppression des emplois permanents susvisés à compter du 31 décembre 2016 ;
- Le maintien d'un emploi permanent d'ETAPS à temps complet à compter du 31 décembre 2016 au sein de la commune d'USTARITZ et la mise à disposition à la Communauté de communes ERROBI de l'agent occupant le poste, à hauteur de 27 heures par semaine ;
- La mise à disposition de 4 agents qui n'exercent pas en totalité leurs fonctions au sein de la piscine ont émis un avis favorable à leur mise à disposition par la Communauté de communes ERROBI à la commune d'Ustaritz.

**- AUTORISE** le Maire à signer :

- tout document relatif à ces décisions ;
- les conventions de mise à disposition correspondantes.

**8. CONVENTION POUR LA REALISATION DE PRESTATIONS DE SERVICES ENTRE LA COMMUNE D'USTARITZ ET LA COMMUNAUTES DE COMMUNES ERROBI - GESTION DE LA PISCINE LANDAGOIEN.**

Monsieur le Maire présente le rapport suivant,

Vu les dispositions du Code Général des Collectivités Territoriales (CGCT) et notamment son article L. 5214-16-1 qui stipule « Sans préjudice de l'article [L. 5211-56](#), la Communauté de communes peut confier, par convention conclue avec les collectivités territoriales ou les établissements publics concernés, la création ou la gestion de certains équipements ou services relevant de ses attributions à une ou plusieurs communes membres, à leurs groupements ou à toute autre collectivité territoriale ou établissement public.

Dans les mêmes conditions, ces collectivités territoriales et établissements publics peuvent confier à la Communauté de communes la création ou la gestion de certains équipements ou services relevant de leurs attributions »

- Esku uzte hitzarmenak.

**8. UZTARITZEKO HERRIA ETA ERROBI HERRI ELKARGOAREN ARTEKO ZERBITZUEN PARTEKATZE HITZARMENA – LANDAGOIEN IGERILEKUAREN KUDEAKETA.**

Auzapez jaunak ondoko txostena aurkezten du,

Ikusiz, Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusia (CGCT), eta bereziki L. 5214-16-1 artikulua, zeinek zehazten duen « [L. 5211-56-1 artikulua kaltetu gabe, herri elkargoak, lurraldeko kolektibitateekin edota hunkituak diren erakunde publikoekin egin hitzarmenen bidez, bere esku diren ekipamendu edota zerbitzuen sorrera edo kudeaketa egitura horren kide den edo diren herri batzuen, edota herri horiek biltzen dituen elkargoaren edota bestelako edozen lurralde kolektibitate edota erakunde publiko baten esku uzten ahal dituela.](#)

Baldintza berdinetan, lurralde kolektibitate eta erakunde publiko horiek herri elkargoaren esku utzi ditzakete bereak diren ekipamendu edo zerbitzuen sorrera edo kudeaketa»

Kontuan hartuz, aipatu LKKN artikulua xedapenen aplikatzeko, ERROBI herri elkargoak, hitzarmen bidez, Uztaritzeko herriari, berea den LANDAGOIEN igerilekuaren kudeaketa partez uzten ahal diola;

Kontuan hartuz, hitzarmen horrek ez duela eskumen aldaketa bat eragiten, ez bada, ekipamenduaren ohiko mantenu teknikoa, garbiketa, eta izaera orokorreko ohiko kudeaketa lanak (fotokopiak, informatika arazoaren konponketa etab...) burutzeko bere esku uzten dituela

Kontuan hartuz, ERROBI herri elkargoak, 2016ko irailaren 7an iragan elkargoko kontseiluan, igerilekuaren kudeatzeko eskumena hartu duela eta Uztaritzeko herriak 2016ko irailaren 29an, delibero bidez, moldaketa hori onartu duela ;

Kontuan hartuz, komeni dela ERROBI herri elkargoak LANDAGOIEN igerilekuaren ohiko mantenu teknikoa, garbiketa, eta izaera orokorreko ohiko kudeaketa lanak (fotokopiak, informatika arazoaren konponketa etab...) Uztaritzeko herriaren esku uzteko hitzarmenaren baldintzak finkatzea ;

Herriko biltzarrak aho batez,

**- ONARTZEN DU** ERROBI herri elkargoarekin zerbitzu partekatze hitzarmen bat izenpetzea, elkargoaren ordean LANDAGOIEN igerilekuaren ohiko mantenu teknikoa, garbiketa, eta izaera orokorreko ohiko kudeaketa lanak (fotokopiak, informatika arazoaren konponketa etab...) burutzeko;

**- ZEHAZTEN DU** ERROBI herri elkargoak zerbitzuaren egiazko kostuaren araberako gastuak ordainduko dizkiola urtero;

**- BAIMENA EMATEN DIO** Auzapezari izenpetu ditzan Akordio honi dagozkion dokumentu guztiak.

Considérant qu'en application des dispositions de l'article précité du CGCT, la Communauté de communes ERROBI peut confier par convention une partie de la gestion de la piscine LANDAGOIEN relevant de ses attributions à la commune d'Ustaritz ;

Considérant que cette convention n'entraîne pas un transfert de compétence mais une délégation d'une partie de la gestion de l'équipement pour ses volets entretien technique courant, nettoyage, actes de gestion courantes à caractère général (photocopies, dépannage informatique etc...);

Considérant que la Communauté de communes ERROBI s'est dotée de la compétence piscines par décision de son conseil communautaire en date du 7 septembre 2016 et que la commune d'USTARITZ à approuvée cette modification par délibération du 29 septembre 2016 ;

Considérant qu'il convient de fixer les modalités de la convention par laquelle la Communauté de communes ERROBI, entend confier une partie de la gestion de la piscine LANDAGOIEN pour ce qui concerne son entretien technique courant, nettoyage, actes de gestion courantes à caractère général (photocopies, dépannage informatique etc...) à la commune d'Ustaritz.

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **APPROUVE** la conclusion d'une convention de prestation de services avec la Communauté de communes ERROBI pour assurer en lieu et place de la Communauté de communes ERROBI l'entretien technique courant, le nettoyage, les actes de gestion courantes à caractère général (photocopies, dépannage informatique etc.) de la piscine LANDAGOIEN ;

- **PRECISE** que la Communauté de communes ERROBI réglera à la commune annuellement l'ensemble des dépenses engagées sur la base d'une estimation du coût réel de la prestation ;

- **AUTORISE** le Maire à signer tout document afférent à cet accord.

#### **9. SERVICES TECHNIQUES /ADMINISTRATION GENERALE – SUPPRESSIONS D'EMPLOIS PERMANENTS A TEMPS COMPLET.**

Monsieur Drieux présente le rapport suivant,

Il indique que, suite à l'évolution de certains services, il y a lieu de supprimer deux emplois permanents à temps complet.

Il est donc nécessaire de supprimer :

- Services Techniques :

- Un emploi permanent d'adjoint technique de 2ème classe à temps complet à compter du 15 décembre 2016.

- Service Administration Générale :

- Un emploi permanent de rédacteur principal 1<sup>ère</sup> classe à temps complet à compter du 15 décembre 2016.

#### **9. ZERBITZU TEKNIKOAK / ADMINISTRAZIO NAGUSIA - DENBORA OSOKO LANPOSTU IRAUNKORREN EZEZTATZEA.**

Drieux jaunak ondoko txostena aurkezten du,

zerbitzu batzuen bilakaeraren ondotik, denbora osoko BI lanpostu iraunkorren ezeztatzea beharrezkoa da.

Hona ezeztatu behar direnak :

- Zerbitzu teknikoak :

- 2016ko abenduaren 15.etik goiti denbora osoko 2. mailako teknika laguntzaile lanpostu iraunkor bat ;

- Administrazio nagusia zerbitzua :

- 2016ko abenduaren 15.etik goiti denbora osoko 1. mailako erredaktore nagusi lanpostu iraunkor bat ;

Ikusiz, 2016ko urriaren 28ko biltzarrean batsorde teknikoak eman duen iritzi ona ;

Herriko Kontseiluak aho batez,

- Aipatu lanpostu iraunkorrak **EZEZTATZEN ditu** idatziak diren dataetan.

#### **10. HERRIKO LANPOSTUAK - DENBORA OSOZ ARIKO DIREN EDO DENBORA OSOA BETEKO EZ DUTEN BEHIN BETIKO LANGILEEN KOPURUA.**

Drieux jaunak ondoko txostena aurkezten du,

Herriko Biltzarraren ardurak da, auzapezak egin proposamena aztertu ondoren, zerbitzuen ibilmoldearentzako beharrezkoak diren denbora osoa edo denbora osoa beteko ez behin betiko lanpostuen kopurua deliberatzea. Horrekin batera, lanpostu horien astekako ordu kopurua finkatu beharko du.

1983ko uztailaren 13ko 83-634 aldatutako legearen arabera, zeinek funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak finkatzen dituen,

1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 aldatutako legearen arabera, hau da, lurraldeko funtzio publikoko lanpostuen estatutuen gaineko xedapenen arabera,

1991ko martxoaren 20ko 91-298 aldatutako dekretuaren arabera, hau da, lurraldeko funtzio publikoan denbora osoa betetzen ez duten behin betiko lanpostuetan izendatu funtzionarioen estatutuak finkatzen dituen xedapenen arabera,

1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 aldatutako legearen 4. Artikulua betearazteko onartu dekretuen arabera, hau da, funtzioen arabera taldeen estatus bereziak finkatzen dituenak eta hauekiko mailaketa antolatzen dituenak

Herriko Biltzarrak aho batez,



Considérant que le Comité Technique a émis un avis favorable à ces suppressions, en sa séance du 28 octobre 2016 ;

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **SUPPRIME** les emplois permanents susvisés aux dates indiquées.

#### **10. EMPLOIS COMMUNAUX – EFFECTIFS DES EMPLOIS PERMANENTS A TEMPS COMPLET ET NON COMPLET.**

Monsieur Drieux présente le rapport suivant,

Il appartient à l'organe délibérant de la collectivité, sur proposition de l'autorité territoriale, de déterminer les effectifs des emplois permanents à temps complet, et non complet, nécessaires au fonctionnement des services et de fixer la durée hebdomadaire de service afférente à ces emplois.

Vu la loi n° 83-634 du 13 juillet 1983 modifiée, portant droits et obligations des fonctionnaires,

Vu la loi n° 84-53 du 26 janvier 1984 modifiée, portant dispositions statutaires relatives à la fonction publique territoriale,

Vu le décret n° 91-298 du 20 mars 1991 modifié, portant dispositions statutaires applicables aux fonctionnaires territoriaux nommés dans des emplois permanents à temps non complet,

Vu les décrets portant statuts particuliers des cadres d'emplois et organisant les grades s'y rapportant, pris en application de l'article 4 de la loi n° 84-53 du 26 janvier 1984 modifiée.

Le Conseil Municipal à l'unanimité,

- **APPROUVE** le tableau des emplois permanents à temps complet et non complet de la collectivité, à compter du 1<sup>er</sup> janvier 2017, comme suit (voir annexe) ;

- **DIT** que les crédits nécessaires à la rémunération et aux charges sociales correspondants aux emplois et grades ainsi créés sont inscrits au budget de l'exercice en cours.

#### **\* DIVERS.**

#### **11. DELIBERATIN DE PRINCIPE REFUSANT LE TRANSFERT DE LA COMPETENCE EN MATIERE DE PLU, DE DOCUMENT D'URBANISME EN TENANT LIEU ET DE CARTE COMMUNALE A LA COMMUNAUTE D'AGGLOMERATION PAYS BASQUE.**

Monsieur le Maire présente le rapport suivant,

Il informe le Conseil Municipal que la loi pour l'Accès au Logement et un Urbanisme Rénové (ALUR) du 24 mars 2014 prévoit le transfert aux EPCI de la compétence en matière de PLU, de document d'urbanisme en tenant lieu et de carte

- **ONARTZEN DU** 2017ko urtarrilaren 1etik goiti, denbora osoa edo denbora osoa beteko ez duten behin betiko lanpostuen taula (ikus eranskina) ;

- **ADIERAZTEN DU**, molde horretan sortu lanpostuen zein mailen lansariak eta kargu sozialak eragin gastuak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak aurtengo aurrekontuan txertatuko direla.

#### **\* OROTARIK.**

#### **11. THP-ARI, DAGOZKION HIRIGINTZAKO AGIRIEI ETA HERRIKO MAPARI BURUZKO ESKUMENA IPAR EUSKAL HERRIKO HIRIGUNEARI EMATEA UKATZEKO PRINTZIOZKO DELIBEROA.**

Auzapez jaunak ondoko txostena aurkeztu du,

Herriko Kontseiluari jakinarazi dio 2014ko martxoaren 24ko Bizitegirako bidearen eta Hirigintza Berrituaren aldeko ALUR legean idatzia dela THPari, dagozkion hirigintzako agiriei eta herriko mapari buruzko eskumena HELEPen esku ematea.

THPari dagozkion hirigintza agiriak THParen ordezkariak ezartzen dituzten agiriari dira; hots, lurren okupatze planak (POS), eremuetako antolamendu planak (PAZ) eta babesteko eta balioztatze planak (PSMV).

Gaitasun horren eskualdatzea 2017ko martxoaren 27tik goiti baitezpadakoa izanen da (legea argitaratu eta 3 urteko epearen buruan), salbu herrien %25 edo gehiago kontra agertzen badira, eta biztanleen %20 edo gehiago osatzen badute.

2014ko martxoaren 24ko 2014-366 legearen 136 II artikulua kontuan izanik;

2016ko martxoaren 17ko prefektura-zirkularra kontuan izanik; Euskal Kostaldea Aturri eta Hego Lapurdi hiriguneak eta Amikuze, Iholdi-Oztibarre, Garazi-Baigorri, Soule-Xiberoa, Hazparneko Lurralde, Bidaxune, Errobi eta Errobi-Aturri herri elkargoak batuz sortuko den Ipar Euskal Herriko Hiriguneari buruzko 2016ko uztailaren 13ko prefektura-erabakia kontuan izanik; Lurralde elkargoetako kode orokorreko L 5216-5 artikulua kontuan izanik;

Uztaritzeko herriak

- segurtatu du sortuko den Ipar Euskal Herriko hiriguneari zaila izanen zaiola (elkargo kontseiluan 233 hautetsi izanen dira) THPari eta dagozkion hirigintza-agiriei buruzko eskumena eskualdatu aitzin abiatu prozeduretako egintza eta delibero guzietan eskubide osoz aitzinekoen ordezkatzeari;

- eta, tokiko egoerak eta elkargoak baino ttipiagoak diren egitura publikoetako Tokiko hirigintza planak martxan emateko behar diren epeak kontuan harturik, herri eskumen hori atxiki nahi du, trantsizio garai batendako, gai horiek lurraldeetarik ahal bezain hurbil kudeatzeko.

Eztabaidatu ondoan (bozka modalitateak zehaztekoak), Uztaritzeko herriko kontseiluak,

communale.

Les documents d'urbanisme tenant lieu de PLU sont les documents dont les règles s'appliquent en lieu et place du PLU : il s'agit des plans d'occupation des sols (POS), des PAZ (plan d'aménagement de zone) et des plans de sauvegarde et de mise en valeur (PSMV).

Le transfert de cette compétence est obligatoire à compter du 27 mars 2017 (délai de 3 ans après la publication de la loi), sauf si au moins 25% des communes représentant au moins 20% de la population s'y opposent.

Vu l'article 136 II de la loi n°2014-366 du 24 mars 2014 ;

Vu la circulaire préfectorale du 17 mars 2016 ;

Vu l'arrêté préfectoral en date du 13 juillet 2016 portant création de la Communauté d'Agglomération Pays Basque issue de la fusion des communautés d'agglomération Côte Basque Adour et Sud pays basque, des communautés de communes d'Amikuze, Iholdi-Ostibarre, Garazi-Baigorri, Soule-Xiberua, Pays d'Hasparren, Pays de Bidache, Errobi, Nive-Adour;

Vu l'article L 5216-5 du code général des collectivités territoriales ;

Considérant que la commune d'Ustaritz,

- constate la difficulté pour la future communauté d'agglomération du Pays basque (conseil communautaire de 233 élus) de se substituer de plein droit dans tous les actes et délibérations afférents à toutes les procédures engagées avant la date du transfert de la compétence PLU et de documents d'urbanisme en tenant lieu ;

- et, au vu des contextes locaux, des délais nécessaires à la mise en place des Plans locaux d'urbanisme infra communautaires, souhaite conserver sa compétence communale pendant une période transitoire pour gérer ces questions au plus près des territoires.

Après en avoir délibéré (modalités de vote) à préciser, le conseil municipal d'Ustaritz,

- **S'OPPOSE** à la prise de compétence en matière de PLU et de documents d'urbanisme en tenant lieu par l'actuel EPCI et par anticipation par la future communauté d'agglomération Pays basque avant 5 ans, sauf volonté explicite ultérieure ;

-**DEMANDE** au futur conseil communautaire de l'agglomération pays basque de prendre acte de cette opposition.

<b>VOTES :</b>	POUR	22
	CONTRE	0
	ABSTENTIONS	6 (Saint-Jean, Dumon, Durand-Ruedas, Vinet, Urrutia, Cendres)

- Egungo elkargoak eta, aldez aurretik, Ipar Euskal Herriko Hiriguneak, THPari eta dagozkion hirigintza-agiriei buruzko eskumena hartzearen **KONTRA AGERTU** da, 5 urteko eperako, salbu gerora esplizituki beste xede bat adierazten badu;

- Ipar Euskal Herriko Hiriguneko elkargoko kontseilua izanen denari **GALDEGITEN DIO** kontrajartze hori kontuan har dezan.

<b>BOZKAK :</b>	ALDE	22
	KONTRA	0
	ABSTENTZIOAK	6 (Saint-Jean, Dumon, Durand-Ruedas, Vinet, Urrutia, Cendres)

**\* ORDEZKARITZEN BILDUMA.**

**\* AHOZKO GALDERAK.**

**\* AUZAPEZAEN ETA AXUANTEN KOMUNIKAZIOAK.**

**\* COMPTE RENDU DE DELEGATIONS.**

**\* QUESTIONS ORALES.**

**\* COMMUNICATION DU MAIRE ET DES ADJOINTS.**

